

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MELLEDESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda jendaurrean jartzea, eta 2021eko bigarren seiheleko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2021eko bigarren seihelekoaren kontribuzio errolda osaturik eta 2022ko urtarrilaren 20an onetsirik, errolda jendaurrean jarrita egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikulua 3. apartatua xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2022ko abuztuaren 12an hasi eta urriaren 11n bukatuko da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2022ko irailaren 5ean kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei beren zerga egoitzara bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du udalak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 28. artikulua xedatutakoaren arabera.

Mellede, 2022ko uztailaren 22a

Lehendakaria

JOSE MIGUEL BERMEJO GALINDO